LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Laugarren Hiruhilekoa 2019

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lanbide

Txosten honek, 2019ko laugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzan eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) "Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta", BJA).

Edukia

Testuinguru Ekonomikoa 2
Lanbiden erregistratutako langabezia 3
Afiliazioa Gizarte Segurantzan 4
Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 5
Okupazioa eta Langabezia, Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA) 6

Testuinguru Ekonomikoa

2019ko laugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko % 2,2ko hazkundea izan du; 2019 urte osoari dagokionez % 2,2ko hazkundea aurreikusten da

Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia % 2,2 hazi zen 2019ko laugarren hiruhilekoan. Urteko aurreko hiru hiruhilekoetan erregistratuko hazkundeen antzekoa izan da hiruhileko honetakoa. Urte osoari dagokion hazkunde tasa ere % 2,2koa izan da 2019an. Aurreko lau urteetan erregistratutako hazkundeak baina apalagoa izan da urte honetakoa, baina ekonomia nagusienetan izan den hazkundea baina altuagoa izan da hala ere. Hiruhileko bilakaerak erakusten du ekonomiaren moteltzea batik bat 2018an izan zela, baina behin 2019an sartu ondoren erritmoa egonkortu egin da.

Eustatek argitaratutako datuak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenaren parean doaz; izan ere, urte arteko BPGaren aldakuntza tasa % 2,2koa aurreikusten zen.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2020ko apirila" txostena

Europako Ekonomiari dagokionez, Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea % 1,0 hazi zela 2019ko laugarren hiruhilekoan (aurreko hiruhilekoan baino 0,3 puntu gutxiago).

Espainiako Ekonomia % 1,8 hazi zen 2019ko laugarren hiruhilekoan (aurreko hiruhilekoaren hazkunde tasa baino 0,1 puntu apalagoa).

2019an hazkunde ekonomikoaren moteltzea erregistratu da, 2018ko datuekin alderatuz. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, 2019 urteko Euroguneko hazkundea % 1,2koa izan da (0,7 puntu apalagoa aurreko urtean baino), eta Espainiako hazkundea % 2,0koa izan da (0,4 puntu apalagoa).

Aurreikuspenetan zentratuz, Euskadiri dagokionez, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak % 3,6ko murrizketa aurreikusten du 2020 urterako. Consensus Forecasten aurreikuspenek diote Eurogunean ekonomia % 0,6 haziko dela eta Espainian, berriz, % 1,5.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2020ko apirila" txostena

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko %0,5eko igoera izan du urteko laugarren hiruhilekoan; +3.014 gizonezko eta -2.486 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** igo egin da 2019ko laugarren hiruhilekoan (528 pertsona gehiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 114.162 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko igoera % 0,5ekoa izan da eta urte arteko jaitsiera % 4,6koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 3.014 pertsonatan igo da gizonezkoen artean eta 2.486 pertsonatan murriztu emakumezkoan artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 51.168 pertsonatan kokatu da eta 62.994 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren igoerarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 35-44 urte bitarteko segmentuan gertatu da (+450); ondoren, 45-54 urte bitartekoen artean (+380); eta 55-64 adin tartean (+113). Gainontzeko taldeetan murrizketak erregistratu dira, bai 25-34 adin tartean (-303) baita 16-24 adin tartean ere (-112).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Gipuzkoa izan da langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duen lurraldea aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 2,0; +151). Araban % 1,2 murriztu da (-232 pertsona).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzerritarren kopurua % 6,2 hazi da eta bertako langabetu kopurua % 0,6an murriztu da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Lehengo kasuan langabetu kopurua 18.435 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 95.727 pertsonatan.

Ikasketa-mailaren arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Unibertsitate ikasketak dituzten langabeak % 8,2an murriztu dira eta jarraian Batxilergoko ikasketak dituzten langabeak (- % 0,1). Derrigorrezko ikasketak dituzten langabeak % 2,5 hazi dira eta Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak, aldiz, % 0,3.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak (+1.031); (ii) Produktu metalikoen fabrikazioa, makinaria izan ezik (+316); eta (iii) Nekazaritza eta Abeltzaintza (+299). Bestalde, aipatu beharra dago langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duen sektorea Hezkuntza izan dela (-670).

Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 980.592 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %2,0 altuagoa

EAEn 2019ko laugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 980.592 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino % 2,0 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino % 1,9 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren % 52a gizonezkoak dira eta % 48a emakumezkoak (aurreko hiruhilekoan baino puntu 1 altuagoa).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (% 50,1). Gipuzkoan, % 33,4koa izan da eta Araban % 16,5ekoa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 10.542 pertsonatan hazi da afiliatu kopurua; ondoren Araba (+4.275) eta Gipuzkoa (+4.192).

Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, laugarren hiruhilekoan afiliatu kopuruan pisu gehien izan duten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (% 17,9); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (% 14,2); (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 11,0); (iv) Hezkuntza (% 7,8); eta (v) Ostalaritza (% 6,9). 2019ko laugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan hazkunde handiena izan duten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Hezkuntza (+12.818); (ii) Arte, jolas eta entretenimendu jarduerak (+2.372) eta (iii) Ostalaritza (+1.849). Afiliatu kopuruan jaitsierarik handiena izan duen jarduera atala Nekazaritza, Abeltzaintza, Basozaintza eta Arrantza izan da (-1.749).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua % 0,6 igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 69.370 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua % 7,1ekoa da, afiliatu autoktonoena % 92,9koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa % 0,4 murriztu da eta emakumezkoen afiliazioa % 1,8. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa Bizkaian soilik igo egin da (+% 2,5). Araban eta Gipuzkoan atzerritarren afiliazio murriztu egin da (-% 1,1 eta -% 1,0, hurrenez hurren).

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

Laugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %8,3 murriztu da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 261.050ekoa izan da

2019ko laugarren hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 124.919ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 8,3 gutxiago. Sexuari dagokionez, gizonezkoen artean % 10,6ko murrizketa izan da eta emakumezkoen artean % 5,9koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen % 45,3k Derrigorrezko ikasketak ditu, % 22,2k Batxilergo ikasketak, % 16,6k Unibertsitate ikasketak eta % 15,4k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2019ko laugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, % 27,8ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiek jasan dute murrizketa kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 25 urte baino gutxiagoko taldea nabarmenduz (-% 19,5).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen % 83,4a bertakoa da eta % 16,6k atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhilekoan baino 0,7 puntu gehiago). Atzerritarren artean, nazionalitate nabarmenenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (%39,1), Europar Batasunekoak eta kanpokoak (% 22,8) eta Afrika iparraldekoak (% 16,3).

Laugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari dagokionez**, EAEn kokatutako lanpostua duten 261.050 kontratu erregistratu dira (kontratatutako pertsonak baino 2,1 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zifra hau ia egonkor mantendu da, % 0,6ko hazkundearekin.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera arruntak jarraitzen du: sinatutako kontratuen % 8,1 kontratu mugagabeak izan dira eta % 91,9 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik % 42,2 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 2,7 puntu gehiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Gipuzkoa izan da jaitsiera handiena izan duen lurraldea kontratazioari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 8,0); Araban egonkor mantendu da eta Bizkaian kontratu kopurua % 6,0 hazi da. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (% 52,8; 137.837); jarraian, Gipuzkoa (% 27,9; 72.770) eta Araba (% 19,3; 50.443).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) ostalaritza (% 16,5); (ii) manufaktura industria (% 14,0); (iii) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 11,8); (iv) merkataritza (% 10,8); eta (v) administrazio jarduerak (% 10,4). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (% 21,5) eta emakumezkoen artean ostalaritza (% 20,3).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %9,3koa izan da eta enplegu tasa %68,6koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** % 68,6koa izan da 16-64 urte bitarteko populazioan (% 72,2 gizonezkoen kasuan eta % 65,1 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 945.500ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 9.600 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 496.800ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino % 1,1 gutxiago) eta 448.700ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino % 0,9 gutxiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (% 81,5), 432.200 landun. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (% 18,8), 32.700 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, laugarren hiruhilekoan eboluziorik txarrena izan duen taldea 16-24 urte bitartekoa izan da (-% 17,0 aurreko hiruhilekoari dagokionez).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoa izan da enplegu tasarik handiena izan duena (% 70,9), jarraian Araba (% 70,6) eta Bizkaia (% 66,7). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bilakaera hurrengoa izan da: Bizkaian -% 1,7; Gipuzkoan -% 0,7 eta Araban +% 0,5.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (% 72,5). Ondoren, Industria sektorea (% 21,4), Eraikuntza sektorea (% 5,2) eta Lehen sektorea (% 0,9).

Kontratu motari dagokionez, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, Eustaten datu faltagatik erabilitako iturria, soldatapekoen % 76,0k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta % 24,0k aldi baterako kontratuak. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen % 82,5 lanaldi osokoak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,6 puntu gehiago) eta % 17,5 lanaldi partzialekoak, EINren BAIren arabera.

Laugarren hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** % 9,3koa izan da (% 8,5 gizonezkoen artean eta % 10,2 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 97.100 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhileko zifra berbera. Emakumezkoen kasuan % 2,4 hazi da langabezia eta gizonezkoen kasuan, berriz, % 2,7 murriztu.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (% 7,3); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (% 10,3) eta 16-24 urte bitarteko taldea (% 22,4). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eboluziorik onena izan duen taldea, balore erlatiboetan, 45 urte edo gehiagokoena izan da % 9,6ko jaitsierarekin.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (% 7,1), jarraian Araban (% 9,8) eta Bizkaian (% 10,5). Langabetu kopurua Araban bakarrik jaitsi da (-% 3,0); Gipuzkoan eta Bizkaian igoerak izan dira (+% 1,7 eta +% 0,2, hurrenez hurren).

Langabeziaren iraupenari dagokionez, EINren BAIren arabera, langabetuen % 48,3k urte bat baino gutxiago darama langabezia egoeran eta % 51,7k urte bat baino gehiago darama egoera horretan (aurreko hiruhilekoan baino 1,1 puntu gehiago).

Ikasketa – mailaren arabera, langabetuen % 42,5ek erdi-mailako ikasketak ditu, % 33,5ek oinarrizko ikasketak eta, azkenik, % 24,0k goi-mailako ikasketak.

Jatorriari dagokionez, EINren BAIren arabera, langabetuen % 76,8 bertakoak dira, jarraian, Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten langabetu atzerritarrak (% 20,2) eta, azkenik, Europar Batasunekoak (% 3,0).